

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA
LINGÜÍSTICA Y CULTURA

BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA

PROBA LIBREA

KOMUNIKAZIO-EREMUA EUSKARA ETA LITERATURA

2016KO MAIATZA

IZEN-DEITURAK: _____

SINADURA:



JARRAIBIDEAK

1. Testua eta galderak arretaz irakurri.
2. Galdera guztiak erantzuten saiatu.
3. Emandako denbora baino lehen bukatuz gero, birpasatu egindakoa.
4. Adi ortografiari: letra larriak, txikiak, puntuak, komak, etab.
5. Horrela eskatzen den ariketetan, erantzun zuzena biribildu edo gurutze bat egin.
6. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.

IRRIBARRE BATEKIN



Oñatiko Txantxiku Ikastolako irakaslea da, baita gimnasia erritmikoko entrenatzailea ere, eta hala ere, tarteren bat libre duenean, diademak, **lepokoak**, eraztunak, belarritakoak, mugikor eta gailu teknologikoentzako estalkiak, ogitartekoak eramateko zakuak, margo-zorroak, brotxeak eta haur nahiz helduentzako beste hainbat osagarri egiteko denbora bilatzen du Lide Osinagak.

“Txiki-txikitan hasi nintzen marrazten, eskumuturrekoak egiten. Gaztetxo nintzela familiakoei eta lagunei brotxeak, eraztunak... oparitzen hasi nintzen, eta berehala heldu zitzaizkidan ingurukoen eskaerak: ‘Nik ere horrelako brotxe bat nahi dut, zenbat da?’ Pixkanaka, jende gehiagorengana heltzen hasi nintzen”.

2008an, beraz, Be Happy proiektua abiatu zuen.



Zergatik Be Happy?

Beti pozik nagoelako, irribarrez. Nire produktuek ni neu identifikatzen nautenez, izen **egokia** iruditu zitzaidan lagun batek proposatu zidanean. Gainera, zoriontasuna transmititu dezaten nahi dut, norbaitek jantzi edo jasotzen dituenean irribarre egitea.

Pieza original eta alaiak dira bereak, estilo eta modu ezberdinetan egindakoak, baina kolore eta argiz beteak denak. Zenbaitetan **ezerezetik** sortzen ditu, buruan darabiltzan ideiei bide emanaz. Beste askotan, **ordea**, bezeroa bera da enkargu zehatza egiten duena; halakoetan, haren gustuen arabera aritzen da, piezak erabat “pertsonalizatuz”.

Nola saltzen dituzu produktuak?

Oñatin bertan, dendaren batean eskuratu daitezke, baina oro har, eskaera bidez edo herrian nahiz inguruan antolatzen diren azoketan saltzen ditut. Eskaera gehienak, hori bai, Internet bidez jasotzen ditut, **Facebooken**, **blogean** eta **DaWanda** plataforman piezen argazkiak zintzilikatzen ditudalako. (...)

“Denetarik jendea dago, baina gizartea hasi da eskuz egindakoaren balore gehigarriaz jabetzen”.

Zurea bezalako proiektuen kasuan, Internetek bidea erraztu duela esango zenuke, ala horrenbeste aukera dago, non bezero potentzialak galdu egiten diren?

Nire kasuan, Sarea erabat positiboa izan da. Egia da aukera oso handia dela, merkatua oso zabala, eta beraz, denetarik aurkitu daitekeela. Baina guztiaren artean badago nirea bezalako proiektu txiki batentzako lekua ere. **Auskalo** zenbat jende ikusiko duen, baina *Be Happy* hor dago, eta horrek asko laguntzen du. Nik neuk lan handia egin behar izaten dut Interneten ikusgai egoteko, jendea erakartzeko... Baina merezi izan du, benetan.

Ilusioa eta gogoia izanez gero, beren ametsen alde lan egitera bultzatu nahi ditu egoera berean dauden gazteak, “ametsak jarraitu egin behar baitira”.

<http://blogak.gaztezulo.eus/paumasaltsan/2014/03/11/irribarre-batekin/>

TESTUAREN ULERMENA

1. Aukeratu erantzun zuzena (Galdera bakoitzaren balioa: 0,3 ptu. Guztira 3,3 ptu).

1.1. Testuan duzun informazioaren arabera, hauetako zer eskulan **EZ DU egiten** Lidek?



A



B



C



D

1.2. Noiz hasi zen eskulanak eta bitxiak egiten?

- A. *Be happy* proiektua sortu zuenean.
- B. Oso gaztea zela.
- C. Txantxiku ikastolan lanean hasi zenean.
- D. Lagunek eta ingurukoek piezak egiteko eskatu ziotenean.

1.3. **Hasierako bi paragrafoak irakurri. Zein da haietan biltzen den ideia?**

- A. Lideren zaletasunik handiena eskolak ematea da, horregatik dabil ikastolan lanean eta gimnasia erritmikoan entrenatzen.
- B. Auzokoek konbentzitu zuten Lide Osinaga irakaslea apaingarriak saltzen hasteko.
- C. Lide Osinagak, irakasten aritzeaz gain, apaingarriak egiten ditu aisialdian. Bere zaletasunik handiena da.
- D. Eskulanekin dirua irabazten zuela ikusita, haiek saltzen hasi zen Lide. Gaur egun eskulanak saltzea da bere lanbidea.

1.4. Zergatik hasi zuen *Be happy* proiektua?

- A. Marraztea eta apaingarriak egitea gustatzen zitzaielako.
- B. Berak egiten zituen eskulanek gero eta arrakasta handiagoa zutelako.
- C. Etxekoek proposatu ziotelako.
- D. Denbora tarte bat libre zuenean, pozik egoteko, eskulanak egiten zituelako.

**1.5. Zergatik da *Be happy* izena egokia?**

- A. Arrazoi asko daude: piezen estilo dibertigarria, Lideren izaera...
- B. Interneten saltzeko aukera ematen duelako izen horrek.
- C. Lagun batek proposatu ziolako.
- D. Pieza horiek egitea oso pozgarria delako.

1.6. Non inspiratzen da Lide piezak egiteko?

- A. Batez ere, modako bitxi eta apaingarrietan.
- B. Jendearen gustuetan eta azoketan ikusten dituen gauzetan.
- C. Buruan dituen ideietan.
- D. Inguruan ikusten dituen koloreetan eta argietan.

1.7. Zein da Lidek erabiltzen duen publizitate bide nagusia?

- A. Piezak dendetan erakustea.
- B. Internet.
- C. Azoketan bere produktuak erakustea.
- D. Ahoz ahoko transmisioa.

1.8. Interneti buruz zer uste du?

- A. Oso lagungarria dela; hala ere, berak nahiago du azoketan ibili eta piezak bertan erakutsi.
- B. Internetek laguntza handia eman dio. Alabaina, lan handia egin behar du produktuak ezagutzera emateko.
- C. Ez da jendeak uste duen bezain lagungarria; lagunak eta auzokoak lagungarriagoak dira.
- D. Internetek lan handiegia ematen dio, produktuak iragartzea zaila baita.

1.9. Honako hauetatik zeinek laburbiltzen du testuak dioena?

- A. Irakasle batek eskuz egindako piezak saltzen ditu soldata osagarria lortzeko.
- B. Oñatiko neska batek eskulanak egin eta saltzen ditu internet bidez, irribarrea beti ahoan.
- C. Eskulanak egitea gustuko du Lide Osinaga irakasleak eta orain, irakasle lana bertan behera utzita, *Be happy* enpresa sortu du.
- D. Lide Osinaga irakasleak erakutsi du bere zaletasuna, bitxiak eta osagarriak egitea, egia bihurtu eta proiektu arrakastatsua izan daitekeela.



1.10. Hauetako zein izenburu izan liteke egokiena?

- A. Lideren zaletasunak.
- B. Euskal bitxiak interneten.
- C. Eskulanean garrantzia gaur egun.
- D. Amets bat proiektu arrakastatsua bihurtu da.

1.11. Zer esan daiteke Lideri buruz testuan irakurritakoaren arabera?

- A. Zoriontasunaren bila dabilela.
- B. Neska alaia eta ekintzailea dela.
- C. Oso anbiziotsua dela.
- D. Ameslaria dela.

HIZKUNTZAREN EZAGUTZA

2. Testuan zenbait hitz dituzu letra lodiz nabarmenduta. Aukeratu hitz horien sinonimoak adibidean bezala: (1 ptu)

Testuko hitzak	sinonimoak			
(Adibidea) irribarrea	irria	barre xumea	barregura	barrena
lepokoa	koilara	idunekoa	txanoa	lekukoa
egokia	ederra	aproposa	aukeratua	ezaguna
ezerezetik	hutsetik	ñimiñotik	zirrikitutik	nonbaitetik
auskalo	egunen batean	beharbada	agian	batek daki
ordea	ordez	aldiz	beharbada	agian

3. Hizkuntzari buruzko gogoeta. Bilatu testuko hasierako bi paragrafoetan honako kategoria gramatikal hauek (0,7 ptu) :

Adibidea. Aditz bat: *bilatzen du*

- Izenordain bat _____
- Aditzondo bat (adizlaguna) : _____
- Bi izenondo (adjektibo): _____ eta _____
- Lokailu bat: _____
- Izen arrunt bat: _____ eta izen berezi bat: _____

4. Berridatzi azpiko esaldiak parentesi artean d(it)uzun hitza(k) erabiliz, adibidean bezala. (1 ptu.)

Adibidea:

Haur nahiz helduentzako beste hainbat osagarri egiteko denbora bilatzen du Lide Osinagak.

(bai, bai)

Bai haurrentzako, bai helduentzako hainbat osagarri egiteko denbora bilatzen du Lide Osinagak.

Zenbaitetan ezerezetik sortzen ditu piezak, buruan darabiltzan ideiei bide emanaz. Beste askotan, ordea, bezeroa bera da enkargu zehatza egiten duena. **(Nahiz eta)**

Nahiz eta

.....

Nire produktuek ni neu identifikatzen nautenez, izen egokia iruditu zitzaidan lagun batek proposatu zidanean. **(bait-)**

.....

.....**bai(t)**.....

5. IDAZLANA (4 ptu)

Jarraian proposatzen zaizun gaia garatu behar duzu eskatzen zaizuna kontuan hartuz.



Egoera: Egunkari digitalean, irakurleen iritzia eskatzen ari dira gai honi buruz: Ametsak. Galdera hau egin dute: *Zein da zure ametsa?*

Egitekoa: Testua idatziko duzu gai horren inguruan. Zure iritzia emango duzu. Gutxienez, 120 hitz idatzi behar dituzu.

Zure testua idazteko, nahi baduzu, puntu hauek erabil ditzakezu:

- Zein da zure ametsa? Zer lortu nahi duzu? Azaldu.
- Bere ametsa bete duen norbait ezagutzen duzu? Zer egin du? Zer gertatu zaio?
- Zein dira ametsak jarraitzeak dituen alderdi positiboak eta negatiboak?
- Ondorioa adierazi, laburbildu ideia nagusia.

